

Kronika-Gogoeta-Kritika

Dima eta Zeanuriko auziaz

1987. urtetik hasita, Arratiako Mankomunitatea osatzen duten Udalerriek, bertako Bake Epaitegiatarako Idazkaritzen Agrupazioa sortzearen aldeko jarrera agertu dute. Justizi Ministeritzari zuzenduriko hainbat eskariren ondoren, 1992ko urriaren 28ko aipatu Ministeritzaren Ordenaren aginduz, Udalerri hauetako Bake Epaitegiatarako Idazkaritzan Agrupazioa eratzen da. Beraz, esan genezake, hasera batetako helburua lortua dela. Nolanahi ere, arazoak ondoren etorri dira, Justizi Ministeritzak Idazkaritza plaza betetzeko euskara ezagutzen ez duen funtzionaria izendatzean, alegia. Horrez, badirudi egoerak onera egin ordez, okerrera jo duela, jakina baita, Dima eta Zeanuriko Udalerriak UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEko partaide izatearekin batera, beraien Udaletako lan hizkuntza euskara izan dadin ahaleginak egiten dihardutela. Helburu hau, erabat ez bada ere, hein handi batetan lortua izanik, funtzionari erdaldunaren izendapenak sekulako atzerapausua suposatuko luke. Are gehiago, Udalerri hauetako biztanleek ez lukete Justizi Administrazioaren euskaraz iharduteko duten eskubidea egikaritzetik izango, eta horrez, legeak aintzatesten duen hizkuntz eskubidea bortxatuko litzateke.

Egiteak aipaturiko hauek izanik, Dima eta Zeanuriko Udalbatzek, euskara ezagutzen ez duen funtzionariari bi Udalerri hauetako Bake Epaitegietan bere postuari legozkion funtzioak ez betetzeko eskaria egitea onartzen zuen Udal akordioa onetsi zuten, herritarren hizkuntz eskubidea ez zela bermatzen argudiatuz. Jakina, akordio honen jakinarazpena, Udalaren ordezkaritza funtzioak betetzen dituen heinean, Alkateak izenpeturik igorri zitzaion funtzionariari. Akordioaren jakinarazpena jaso ondoreneko erreakzioa, plaza jabetzan izanik guztiz lojikoa dena, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzari beronen berri ematea izan da. Organu honek, ofizioz, mehatxu eta koakzioen salaketa tarteratu du Dimako Alkatearen aurka Durangoko Epaitegian. Kode Penalaren 493. artikuluan eta ondorenekoetan arautzen den koakzio eta mehatxuen ustezko delitu honen instrukzioaren fasean, Xabier Etxebarria Jauna, Dimako Alkatea, auziari buruzko azalpenak egitera deitua izan da apirilaren 29an Durangoko

Instrukzioko 2. Epaitegira.

Itzultzailearen laguntzaz euskaraz burutu ahal izan den epaile aurreko deklarazioaren ondoren, epailearen esku legoke largespena ematea edo eta prozedura penaren tramitazioarekin jarraitzea.

Nolanahi ere, aipatu beharrekoa da, egun, behin behineko soluziobide bezala, Bake Epaitegietako Idazkaritzen Agrupaziorako Idazkari euskalduna izendatu dela Justizi Ministeritzaren onespenerekin, nahiz eta Ministeritza horretako funtzionaria ez den.

Elkarlana euskalgintzan

Euskalgintza alorrean elkarlanaren beharra eta nondik norakoak gai garrantzitsua bihurtu zaigu azken urte hauetan. Hitzaldi eta artikulo ugari jorratutako gaia dugu, eta horren adibide gisa azken bi hilabeteetan prentsan agertutakoa.

Paulo Agirrebaltzategik (EKBko Lehendakariak) maiatzak 6ko artikuloan adierazten digunez, gero eta jabetuago gaude euskalgintzan indarrak bateratu beharraz; areago, alor horretan diharduten erakunde publiko eta sozialen arteko elkarriketa eta elkarlana indartzearen aldeko adierazpen gero eta gehiago entzuten omen da. Bere ustetan «...urte luzeegitan eta sarriegi inkomunikazioa eta konfrontazioa nagusitu dira...». Hala ere, bere esanetan, orain dela 10 urte sortu zenetik EKBk «etengabe aldarrikatu du elkarriketa eta elkarlana gauzatu beharra», baina «behin baino gehiagotan neke haundiegia ipini behar izan da susmo txarrak eta aurreritziak gaingitzen». Bere ustetan oraindik elkarlanaren «kultura» landu eta zabaltzeko beharrean gaude, eta, bide horretan, bi baldintza bete behar dira: batetik, alde batekoen eta bestekoek eginkizuna eta erantzunkizuna aitortzea, eta bestetik, inkomunikazioaren hormak hausteko elkarriketa zabaltzea.

Iñaki Arrutik (Lasarteko Udaleko Teknikariak) maiatzak 23ko artikuloan, euskararen berreskurapenak hizkuntz komunitatearen egituraketa ezinbestekoa duela adierazten digu, eta elkarlana euskal hizkuntz komunitate horren artikulazioaren baitan kokatzen du. Horrela, «herri ekimenaren zeregin nagusienetakoa hizkuntz komunitatea egituratzea da, gaur egungo alderdien diskurtso desegituratzaitetik aldentuz» eta «administrazioaren, beraz alderdien, zereginetako bat hizkuntz komunitatearen egituraketa hori gauzatzen laguntzea da». «Bi aldeetatik aurrean hau garatzen den heinean elkarlana gauzatzea antolaketa kontua besterik ez dela izango» eta, «aurrean hau egin ez den edo egin nahi ez den egituretan, berriz, azken hamabost urte hauetako euskalgintzako ikasgairik oinarritzakoa ulertzeke dutela» adierazten digu I. Arrutik.

J.M. Zeberio (HPINko Euskara Gizarteratzeko Zuzendaria) maiatzak 23ko artikuloan adierazten duenez, «euskal hirritarren multzo batek ez du onartzen Euskal Herrian sortu diren erakundeek zilegitasun demokratikoa /.../ eta hori espresuki salatzen da edo inplizitoki onarpen esplizitorik inoiz adierazi gabe». Horrela, elkarlanaren aldarrikapena aurkakotasun politiko baten tresna taktikoa bihurtzen omen da, azpian estrategia

politiko kontrajarriak daudelako. Zeberioek elkarlana parametro hauetan kokatzen du, «Elkarlanak, gizarte eskariak sentsibilitate haundiz hartzea eskatzen diola Administrazioari, eta gizarte erakundeei administrazioaren zilegitasun demokratikoa eta bere funtzioak onartzea eskatzen diela» adieraziz. Bere ustetan, «marko politikoaren aldaketa, helburu politiko zilegia izanik, estrategia arbuigarri bilakatzen da sistema demokratikoaren arauak errespetatzen ez direnean» eta «nekez lor daiteke elkarlana edozein arlotan hain funtsezkoa den printzipioa zalantzan jartzen bada».

J. Inazio Markok (EKBko Idazkari Nagusiak) ekainak 24ko artikuloan, oraindik orain batzuk, Zeberioen artikuloa adibide, topiko eta aurreiritzi zaharkituetan murgildurik ikustea pena ematen diola eta «planteamentuetan aurrerapausoak emateko garaia badela» adierazten digu. Elkarlana eragozten duen oztopo nagusienetakoa «Administrazioan Barne Sail bati dagokion ikuspegia Hizkuntz Politikari dagokion perspektibari gailentzean» omen datza, hala ere jarraitu behar omen da elkarlana ahalbideratzen eta horretarako sei puntu bereizten ditu. Bat, planoak bereizi, «elkarlana ez da helburu nagusia -euskararen berreskurapena baita- baina bai helburua lortzeko ezinbestezko pausua». Bi, euskararen aurrean danok dugu danon beharra, «gustoko ez ditugunak barne». Hiru, ez da ulertzen Zeberioek bere artikuloan esandakoak, mugimendu sozialak aspaldidanik adierazi baitu «erakunde publikoek funtsezko garrantzia hartzen» dutela. Lau, logika hutsa, euskarak egituraketa indartsua behar du, administrazio mailan administrazio guztiak bilduz eta herri-ekimen alorrean, hizkuntz komunitatea artikulatzeko. Bost, helburu estrategiko ezberdinak dituzten erakundeak elkartzen dira eta euskara alorrean ere egin daiteke. Sei, eta azkenik, ditugun arazoan konponbiderako Euskararen «Paktu Soziala» proposatzen digu Inazio Markok.

Hauexek ditugu azken bi hilabeteetan elkarlanaz argitaratutakoak, gure ustez gai honi buruzko iritzi eta jarrerak une honetan zertan diren oso ongi adierazten dutenak. Aurrerantzean ere izango dugu gai hau berriro eta luzeago jorratzeko aukera. Eztabaidak zabalik darrai.

Euskalduntze alfabetatzea eta udal euskara teknikarien arteko elkarlana

Euskara teknikariak dauden udalerri ia guztietan neurri haundiagoko ala txikiagoko elkarlana izan ohi da beroiek eta herri bakoitzeko euskaltegiaren edo euskaltegien artean. Elkarlan hori gai ezberdinen inguruan gauzatu izaten da, eta balantze positiboa egiten dute sarritan parte inplikatu guztiek; beste hainbatetan aldiz, disfuntzio eta are gatazkak ere izan izan dira, kasu batzuetan urterik urte errepikatzen direnak gainera. Arazo horren aurrean, EKBn koordinatzen direnen arteko udal teknikari batzuek eta euskalduntze alfabetatzeko erakunde eta euskaltegi zenbaitetako ordezkariak segidan laburbiltzen den gogoeta burutu dute. Honen bitartez hemen ageri diren kezka eta irtenbide posibleak zabaldu nahi dira, inplikaturik sentitzen diren guztientzako erre-flexio honetan parte hartzeko gonbidapen gisa.

Euskaltegiek mahaiganeratzen dutenez, esperientzia frustrante hainbat egon dira alfabetatzea edo transmisioa bezalako kanpainen inguruan. Ideia benetan onak direnak eta borondaterik onenarekin eginak, erretzen ari dira edo erre daitezke planteatu diren moduarengatik. Funtsean, euskaltegiek planteatzen dutena zera da: euskara teknikariek diseinatzeko dituzten kanpaina edo ihardunbide askotan euskaltegien lana kontenplatzen da, baina hainbat alditan planaren diseino garaian ez da euskaltegiekin hitz egiten, eta hauek aldez aurretik espero ez zituzten arazoekin, eta aurrikusita ez zeuzkaten bitartekoak bilatu beharrean aurkitzen dira. Euskaltegiek beharrezkotzat jotzen dute alfabetatzea eta transmisioa bezalako eskaintza berezien bidea jorratzea, printzipioz behintzat. Baina orain artean ez da beti ziurtatu eskaintza berezi horiek prestatu ahal izateko laguntza nahikoa, eta euskaltegien bizkar joan izan dira ordainak.

Jakina da, halere, udalerrietara kanpaina diseinatua iritsi arren, hainbat herritan egon izan dela udal teknikari eta euskaltegien arteko koordinazioa, eta beste batzuetan, berriz, politikoak izan direla elkarlan hori eragotzi dutenak. Bazterkeriaz ere askotan jokatu dute hainbat udalek, eta jakina den arren euskara teknikari gehienek zintzo jokatu dutela diskriminazioak ebitatu nahian, euskaltegien ustez, kasuren batean ala bestean ez omen da horrela izan.

Udal teknikarien ustez berriz, euskaltegiek askotan konfunditu ohi dituzte teknikarien borondateak eta mugak. Askotan teknikariei leporatzen zaizkie politikoen erabakiak eta ez da ulertzen udal teknikariek ez dutela botere politikorik, nahiz eta jokabide margena batzuetan haundia izan. Ez da ahaztu behar maila teknikoak nekez gaindi ditzakeela politika mailakoak diren mugak. Zentzu honetan erlatibizatu egin beharra dago teknikarien ahalmena. Hori ez da muga bakarra: konpetentzia falta eta lan burokratikoaren saturazioa ere ez dira nolanahikoak izaten.

Aurrerabide gisa, lehenik eta behin, garrantzitsutzat jotzen da gehiago sakontzea eskaintza berezien kontuan: eskaintza horietan sartzen ez diren ikasleekin sortzen diren diskriminazioak, zein alor diren premiatsuenak, zein gizarte sailen parte hartzea behar den,... Gaurko arazoak gainditzeko pausorik inportanteena dena den, kanpainen diseinoan udal euskara teknikariek eta euskalduntze alfabetatzeko erakunde eta euskaltegiek (eta legokiokeen beste edozein gizarte sailek) elkarrekin parte hartzea da. Bi koordinazio maila egon behar lukete:

-Orokorra bata, Udaletako Euskara Teknikarien Sarea eta Nafarroako Teknikarien eta Euskalduntze Alfabetatze Sailaren artekoa, kanpaina haundien diseinoaren garaian eman beharko dena. Kanpaina herrietara iritsi aurretik helburuak, ardatzak, biabilitatea eta abar eztabaidatu behar dira elkarrekin; puntu horiek guztien arteko kontrastea eman beharra dago. Koordinazio maila honek hainbat gauza lortzen saiatu beharko litzateke gainera: administrazio autonomikoen konpromezua eskaintza berezietatik sortzen diren taldeak diruz laguntzeko, eredu didaktiko bereziak egitea eta irakaslearen prestakuntza bermatzea, kanpainaren diseinu orokorrak herri guztietarako baliagarri izatea, kanpaina leku guztietan bateratsu hastea, eta abar.

Koordinazio maila honek aurrebaldintza bat dauka ordea: UETSek eta Nafarroako teknikarien sareak ziurtatu egin behar lukete teknikari guztiak koordinatzea, eta beste horrenbeste esan daiteke EKBren Euskalduntze-alfabetatze Sailarekin. EKBri dago-

kionez gainera, zinez onuragarria litzateke Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia eta Nafar Gobernuako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiarekiko elkarlana ere.

-Herri mailakoa bestea, euskara teknikari bakoitzaren eta herriko euskaltegiaren edo euskaltegien artekoa, kanpainaren egikaritze garaia da dagokiona. Maila hau ondo lantzea funtsezkoa da, herritik herrira asko aldatzen baita egoera, eta diseinu orokorrekin ez baitute gauza haunditarako balio izaten herri bakoitzaren errealitate egokitu ezean. Egokitze horretan oso garrantzitsua da teknikariek eta euskaltegiek (edota bestelakoek ere) lankidetzan ihardutea. Parte bakoitzak hartzen dituen ardura eta konpromezuak argi jasota gera daitezten komeniko litzateke kanpaina berezi horien inguruan hitzarmenak sinatzea-edo.

Laguntzak behar dira eskaintza bereziek planteatzen dituzten erronkei aurre egiteko. Talde didaktikoak eratzea funtsezko pausua da eredu didaktiko bereziak landu eta irakasleagoa prestatzeko. Horretarako dirua da arazoa, noski. Euskaltegien ustez, Eusko Jaurlaritzako HPIN edo HABE eta Nafarroako Gobernuak HPZN edo Hezkuntza Sailak eskaintza berezien kostoa beren gain hartu behar lukete, eta hori egin nahi ez duten kasuetan udalak berak asumitu behar luke kosto hori, nahiz eta oso haundia izan. Ezin gerta daitekeena da administrazioaren konpromezurik gabe ikastaroak martxan jartzea eta azkenean, administrazio autonomikoek subentziorik ematen ez dutelako euskaltegiek sufritu beharra egoera horrek sortzen duen defizita.

Bestalde, euskararen normalizazio prozesurako guztiz kaltegarria da lekuan lekuko alderdien interes politikoen arabera udalerri batzuetan kanpaina egitea eta beste batzuetan ez; oso garrantzitsua da eskaintza berezien beharraz jabetzen diren administrazioak (kasu batzuetan udalak, beste batzuetan gobernuetako hizkuntza politika arduradunak) gainerako udal eta bestelako administrazioekin harremanetan jartzea guztiek elkarrekin kanpaina burutzeko.

Azkenik, proposamen batzuk plazaratu nahi ditugu euskaltegien arteko diskriminazioa sortzen duten praktika politikoen inguruan:

-Udalek izan dezakete ahalmenik haundiena, HPIN, HABE, HPZN eta Nafar Gobernuak Hezkuntza Saila konbentzitzeko bai laguntzak eman ditzaten, bai arau diskriminatzaileak ezar ez dezaten.

-Herri bakoitzeko euskaltzaleen arteko elkarguneak bultzatzea funtsezkoa da, euskalgintza koordinatuz, eta elkarlanaren aldeko mezua zabalduz. Oso garrantzitsua da filosofia hori hedatzea. Herrietako euskara elkarteak dauden lekuetan, berauek bete dezakete koordinatzaile paperak.

-Euskaltegiek pentsatzen dute teknikarien aldetik erreflexio sakonagoa behar dela har dezaketen konpromezuaren gainean: politikoen udal teknikari eta euskaltegien arteko koordinazioa oztopen nahi balute ere, oso garrantzitsutzat jotzen da euskara teknikariaren jarrera pertsonala, besterik ez bada ere udal lanaz kanpoko harreman pertsonalen bitartez.

EK2000